

ATARIKOA

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 2. artikuluan udalei aitortzen zaien autonomia dela eta, egokia dirudi gure udalak Udal Araudi Organikoa sortzea; aro berri honetan gobernuaren eta udal administrazioaren antolakuntza eta funtzionamendua zehazten lagunduko baitugu. Horren ondorioz, toki korporazioen egungo funtzionamenduan aldaketak egin beharko dira, eta aldaketa horiek, gainera, legegintzaldi honetan egin beharrekoak dira –eta jada legegintzaldiaren erdia beteta dago-. Halaber, uste izatekoa da Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Araubidearen Oinarrizko Lege bat bultzatuko duela, eta Estatuko Gobernuak zenbait arau emango dituela, erreferentziako Legea garatzearen. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi Alkateak proposatzen duen Udal Araudi Organikoa behinbehinekoa eta esperimentalak izateak; une jakin batean, funtzionamendu-era berriek erakusten digutenaren arabera, edukiak berrikusteko aukera izan dadin.

I. titulua.- Xedapen orokorra.

1. artikulua. - Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 2. artikuluan udalei aitortzen zaien autonomia dela eta; Pasaia Udalak, 1985eko uztailaren 22ko udalbatzarrean hartutako akordioaren bidez, Udal Araudi Organikoa onartu du.

II. Titulua. - Udal antolamendua.

2. artikulua. - Udalari dagozkio udal-gobernua eta udal-administrazioa; alkateak eta zinegotziek osatzen dute udala.

3. artikulua. - Udalak organo hauen bitartez gauzatuko ditu bere eskurantzak:

1. - Erabakitzeko ahalmenarekin:

- a) Alkatea.
- b) Gobernu Batzordea.
- c) Zinegotzi ordezkariek.
- d) Alkateordeak, alkatearen ordez eta ezarritako ordenaren arabera.
- e) Udalbatza.

2. - Azterketa eta txostenak egiteko ahalmenarekin:

- a) Informazio-batzordeak.
- b) Kudeaketa deskontzentratuko lurralde organoak.

- **Lehenengo kapitulua: alkatea eta alkateordeak.**

4. artikulua. - Alkatea Udalbatzaren, Gobernu Batzordearen eta udal batzorde, batzar eta erakunde guztien lehendakaria da, eta eskurantza hauek izango ditu:

- a) Udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzea.
- b) Udalaren ordezkaritza izatea.
- c) Udalbatzarrerako, Gobernu Batzorderako eta udaleko beste organoetarako deia egin eta horietan buru izatea.
- d) Udal-zerbitzuak eta udal-obra zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- e) Bandoak ematea.
- f) Gastuak xedatzea, bere eskumenen mugen barruan; ordainketak agintzea, eta kontuak ematea.
- g) Haren konfiantzako langileak izendatzea eta kargugabetzea, udalerraren aurrekontuan esleitutako kredituen barruan. Era horretan kontratatzen diren langileak behin-behinekoak izango dira beti, eta haien kargua utziko dute alkateak kargua uzten duenean.
- h) Udaleko langile guztien goi-buruzagitza betetzea.
- i) Udaltzaingoaren goi-buruzagitza betetzea; halaber, armak erabiltzen dituzten funtzionarioen diziplinazko ahalmena ezartzea.
- j) Premiazko kasuetan ekintza judizialak eta administratiboak gauzatzea.
- k) Hondamendi edo ezbehar publiko edota horien arrisku handia dagoenean bere kasa eta bere erantzukizunpean beharrezko neurri egokiak hartzea, eta berehala Udalbatzari horren berri ematea.

- l) Bere agintaritzari menik ez egiteagatiko eta udal-ordenantzak hausteagatiko hutsegiteak zigortzea, ahalmen hori beste organo batzuen esku dagoenean izan ezik.
- ll) Obrak eta zerbitzuak kontratatzea, baldin eta horien zenbatekoa 1.500.000 pezetatik gorakoak ez badira.
- m) Lizentziak ematea, Ordenantzak hala xedatzen dutenean.
- n) Legeek aitortzen dizkieten gainerakoak eta Estatuko legeriak edo Elkarte Autonomoak eta Foru Organoek udalerriri ematen dizkietenak, beste udal organoei ez dagozkienak
- Alkateak eginkizun espezifikoak eskuordetu ahal izango dizkio edozein zinegotziri, eta horrek zinegotzi ordezkarari moduan erabiliko ditu ahalmen horiek.

5. artikulua.- Alkateak askatasunez izendatu eta baztertzen ditu alkateordeak Gobernu Batzordeko kideen artetik

6. artikulua.- Hauek dira alkateordeei dagozkien eskurantzak:

- a) Alkatea ordezkatuko dute kargua hutsik dagoenean, hura gaixo dagoenean, edo ez dagoenean. Alkateordeek alkateari dagozkion eskurantza guztiak izango dituzte, haien izendapenaren hurrenkeran.
- b) Une jakin batean alkateak egokitzat jo eta eskuordetzen dizkienak.

- Bigarren kapitulua: Gobernu Batzordea

7. artikulua.- Gobernu Batzordeko kideak izango dira alkatea eta zinegotzien herena gehienez; azken hauek izendatu eta kendu alkateak egingo ditu, bera izango baita gobernu batzordeko burua. Karguizendatze eta kargu-kentzeen berri Udalbatzarrari emango zaio.

8. artikulua.-

(Indargabetua, 2011ko urriaren 24ko 202. zenbakidun GAOn argitaraturiko Udalbatzarraren erabakia dela medio).

- Hirugarren kapitulua: Udalbatza.

9. artikulua.- Udalbatza alkateak eta zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea du buru. Aukeratu eta osatu Hauteskunde-legerian zehazten den bezala egingo da.

10. artikulua.- Hauek dira, nolnahi ere, udalbatzari dagozkion eskurantzak:

- a) Gobernu organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerraren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armaria onartzea edo aldatzea.
- c) Hirigintza-legedian aurreikusita dauden antolamendu eta kudeaketa planak eta gainerako tresnak onartzea.
- d) Udal Araudi Organikoa eta Ordenantzak onartzea.
- e) Tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaitan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea.
- f) Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotze-espeditenteak onartzea.
- g) Beste herri-administrazio batzuek eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
- h) Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.
- i) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkako zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea; hori guztia Toki Araubidearen Oinarrien Legearen VII. Tituluan zehaztuta dagoen moduan; eta halaber, Korporazioko funtzionarioak zerbitzutik kentzeari dagokionez ere, Lege berean, 99. artikuluan, 4. Idatz-zatian xedatzen dena salbu, eta lan-kontratuko langileen kaleratzearen berrespena.
- j) Administrazio eta epaitegietako egintzak gauzatzea.
- k) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
- l) Ondarea besterentzea.
- ll) Haiek onartzeko gehiengo berezia behar delako Udalbatzari dagozkionak.
- m) Legeek izendatuki esleitzen dizkietenak.
- n) Nahitaezko desjabetze akordioetan errekurri daitezkeenak administrazioarekiko auzien bidetik.
- ñ) Alkatearen aurka aurkeztutako zentsura mozioaren bozketa, Hauteskunde Legedi Orokorrean xedatzen denaren arabera burutua.

- **Laugarren kapitulua: Informazio Batzordeak.**

11. artikulua.- Informazio Batzordeak eratzen dira, Udalbatzak erabaki beharreko gaiak prestatzeko, aztertzeko edo horiei buruzko txostenak egiteko.

12. artikulua.- Hauek dira Informazio Batzorde Iraunkorrak:

— Ogasuneko Informazio Batzordea. Batzorde honek izaera bikoitza izango du, Kontuen Batzorde Berezia ere izango baita, Tokiko Erakundeen Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 127.3. artikuluan ezartzen denari jarraiki.

- Pertsonal eta Antolakuntza Informazio Batzordea.
- Ondare, Kontratazio eta Zerbitzu Juridikoen Informazio Batzordea .
- Hirigintza eta Ingurumeneko Informazio Batzordea.
- Hiri Berriztapenerako Informazio Batzordea.
- Zerbitzuetako Informazio Batzordea .
- Gizartekintzako Informazio Batzordea.
- Kultura eta Hezkuntzako Informazio Batzordea .
- Euskara eta Normalizazioko Informazio Batzordea.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Informazio Batzordea .
- Haurtzarora, Nerabezarora eta Gazteria Sustatzeko Informazio Batzordea.
- Hiri Mugikortasuneko Informazio Batzordea.

Udalbatzako talde politiko guztiek eskubidea dute haien zinegotziek informazio-batzordeetan parte hartzeko, Udalbatzak erabaki beharreko gaiak prestatzeko, aztertzeko edo horiei buruzko txostenak egite aldera. Taldeetako eledunek Alkatezari jakinaraziko diote zein zinegotzi izendatu dituzten batzordeetan parte hartzeko, eta Alkatezak Udalbatzari emango dio informazio-batzordeen osakeraren berri. Eledun horiek proposatuz gero, alkateak informazio-batzordeetako kide izendatu ahal izango ditu zinegotzi ez izan arren, talde politiko horiek ordezkatzan dituzten pertsonak, baldin eta funtzionarioak edo udalak kontratatutakoak ez badira.

13. artikulua.- Informazio-batzordeei dagokie, udaleko organo erabakitzaileek hartu beharreko akordioak aztertzea, edo horiei buruzko txostena edo irizpena ematea, kasu hauetan:

- a) Alkatea edo Gobernu Batzordeak, nork bere eskurantzaren arloan, erabakitzen dutenean dagokion batzordeak gai jakin bati buruzko txostena eman behar duela.
- b) Nahitaez Udalbatzaren eskurantzako gai guztietan.

14. artikulua.- Alkateak batzorde bereziak ordezkatu ahal izango ditu gai jakin batzuetan.

Batzorde berezi bat sortu da, gaiak aztertzeko, kontsultatzeko, txostenak egiteko eta, hala badagokio, ekimenak dinamizatzeke; gure udalerraren lurralde-mugaketari atxikitako eginkizun eta ardurak garatzeko tresna eraginkorra delakoan.

Batzorde berezi horretan parte hartuko dute Udalbatzak izendatzen dituen pertsonak, Pasaia herriarrak kanpo utzi gabe.

Batzorde bereziaren buru alkatea izango da, eta udal letraduaren laguntza izango du. Halaber, une bakoitzean behar diren teknikariak ere bertaratuko dira batzordera.

Eledunen Batzordearen eta gainerako informazio-batzordeen eskurantzak ere izan daitezkeela kontuan hartuta, Batzorde Bereziari eginkizun hauek ezartzen zaizkio:

- Udalerraren mugen egoera, eta horrek hirigintza, soziologia eta sozioekonomiaren arloetan dituen ondorioak aztertzea, ikertzea eta horretan sakontzea,
- Lurralde-gatazkan udalerrak erabiliko duen estrategia aztertzea eta udalari gomendatzea.
- Udalerriko gizarte- eta politika-eragileekin harremanetan jartzea.
- Komunikazio-plana egitea eta udalari proposatzea. Udalaren erreferentzia izango da kanpora begira, batez ere herriarren aurrean.
- Udalari proposatzea beharrezkoak diren ikerlan osagarrien kontratazioa.
- Lurralde-gatazkan eragina duen edozein udal akordio hartu aurretik, batzordeari kontsulta egingo zaio.

Ondorioz, Udalbatzak ez ditu aintzat hartuko lurralde-gatazkari buruzko gaiak, aurrez Batzorde Bereziak horiei buruzko irizpenik eman ez badu.

• Udalbatzak lurralde-mugaketari buruz lortutako emaitzak behin betiko onartu aurretik, txostena egitea, emaitza horiei buruzko galdeketa egitea egokia edo beharrezkoa den azaltzarren.

15 artikulua. - Informazio-batzordeen buru izango dira alkatea edo hark izendatutako ordezeko zinegotziak.

III. titulua- Udal-organoen erregimena eta funtzionamendua:

- Lehenengo atala: udalbatzarreko saioak

16 artikulua.- Udalbatzaren bilkura-araubideari eta funtzionamenduari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen Legearen 46. artikuluan xedatutakoa bete behar da, xehetasun hauekin:

- Udalbatzak ohiko bilkurak egingo ditu hilabete guztietako azken asteartean, abuztuan izan ezik; izan ere, hilabete hori baliogabe izendatzen da, ohiko bilkuren araubidearen ondorioetarako bakarrik. Egun hori jaieguna izanez gero, bilkura hurrengo egun baliodunean egingo da.

- Bilkurak udalerriko lau barrutietan egingo dira txandaka, eta hurrenkera honetan: Pasai Donibaneko udaletxea, Pasai San Pedroko Udal Aretoa, Trintxerpeko Alkateordetza eta Pasai Antxoko Kultur Etxea.

- Bigarren kapitulua: eztabaidak.

17. artikulua.- Alkateak udalbatzarraren gai-zerrenda prestatzen du, eta zinegotziei bidaltzen die, deialdiarekin batera. Ohiko udalbatzarretan ezin izango da akordiorik hartu gai-zerrendan ez dauden gaiak buruz, baldin eta arrazoi berezirik ez badago; eta halakoetan, Udalbatzak aurrez premiazkotzat jo beharko du gaia, kide gehienen aldeko botoekin.

18. artikulua.- Udalbatzarraren bilkura hasteko, aurreko bilkurako akta onartuko da.

19. artikulua.- Akordioen onarpenean parte hartu zuten kideetako batek uste badu aktaren erredakzioak zalantzaren bat sortzen duela, lehendakariari eska diezaioke puntu hori zehaztasunez argitzeko; eta Udalbatzak egokitzat jotzen badu, beste akta bat idatziko da, ondoren onar dadin.

Inolaz ere ezingo da hartutako akordioen mamia aldatu, soilik akats materialak edo formazko akatsak zuzendu ahal izango dira.

Udalbatza berri behar den bakoitzean, Udalbatzako kideek ezohiko bilkura egingo dute, azkeneko bilkuraren akta onartzeko ondorio bakarrekin.

20. artikulua.- Lehendakariari dagokio bilkurak bideratzea eta zuzentzea.

21. artikulua.- Zinegotziek ezingo dute hitz egin, lehendakariari hitza eskatu eta hark eman gabe.

22 artikulua. - Gai batean edo batzuetan eztabaida sortuz gero, gai horiek lehenengo eztabaidatu eta gero bozkatu egingo dira.

Zinegotzien esku hartzea, dagokien talde politikoaren kideen kopuruaren alderantzizko hurrenkeran egingo da.

- Hirugarren kapitulua: mozioak.

23 artikulua. - Mozio bat zuzenean udalbatzarrera bideratzeko, gutxienez zinegotzi guztien heren baten sinadura behar du.

- Laugarren kapitulua: erabakiak hartzea.

24 artikulua. Erabakiak Udalbatzako edo Gobernu Batzordeko kideen gehiengo soiluz hartuko dira, nor bere eskurantzzen arloan, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 47.2. eta 3. artikuluan aurreikusitako salbuespenekin.

25. artikulua.- Bozketan berdinketa badago, beste bozketa bat egingo da, eta berdinketak jarraituko balu, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du emaitza.

26. artikulua.- Zinegotziek idazkariari eska diezaiokete haien botoa aktan jasotzeko; aurka bozkatu dituzten

akordioak aurkaratzeko garaian, zilegitasuna ematearren.

27. artikulua.- Bozketa hasi aurretik, lehendakariak argi eta labur azalduko du zer bozkatu behar den, eta nola bozkatu behar den.

Bozketa bukatu ondoren, alkateak erabakitakoaren berri emango du.

28. artikulua.- Hartutako akordioaren aurkako botoa eman duten udalkideek legezko eskubidea izango dute bidezko ekintza administratibo eta judizialak aurkezteko.

Aurreko paragrafoan aipatutako egintzek eragiten dituzten gastuak eta kostuak udalaren kontura izango dira, osorik edo zati batean horien aldeko ebazpena emango balitz, nahiz eta azkeneko ebazpen judizialean kostuak berariaz ez ezarri.

- **Bosgarren kapitulua: Gobernu Batzordearen funtzionamendua.**

29. artikulua.-

(*Indargabetua, 2011ko urriaren 24ko 202. zenbakidun GAOn argitaraturiko Udalbatzarraren erabakia dela medio*).

30. artikulua.- Gobernu Batzordeko batzarrak ez dira argitaratuko, baina hartutako akordioen laburpena eta bozketen emaitzak iragarki-taulan jarriko dira, lau egunetara. Oro har, Gobernu Batzordeko kide diren zinegotziei bakarrik deitu ahal izango zaie eta haiek bakarrik agertu ahal izango dute.

Inoiz, lehendakariaren ekimenez edo Gobernu Batzordeko kideek eskatuta, batzorderen batean udalkide bat agertzea komenigarri joko balitz, soilik gai jakin bati buruzko informazio gehiago izatearren, lehendakariak udalkide horri dei egingo lioke.

31. artikulua.- Gobernu Batzordeko ohiko batzarretan akordioak hartzeko, araudi honen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.

32. artikulua.- Bilerak bakoitzeko akta egingo da. Akta hori idazkariak sinatuko du eta, batez ere, alderdi hauek jasoko dira:

- Eguna, hilabetea eta urtea.
- Hasierako eta amaierako orduak.
- Bertaratutako kideak.
- Aztertutako gaiak.
- Emandako irizpenak.
- Izandako esku-hartzeen laburpena eta bozketen emaitzak, bozketak egiten direnean.

33. artikulua.- Gobernu Batzordeko aktak zinegotzi guztien eskura egongo dira.

- **Seigarren kapitulua: informazio-batzordeen funtzionamendua.**

34. artikulua.- Informazio-batzordeek, egiten duten lehenengo bileran, beren bilkuren araubidea ezarriko dute; araubide hori indarrean egongo da aldaketarik adosten ez den bitartean; dena dela, ezohiko bileretarako deia ere egin ahal da, baldin eta gairen bat garrantzitsua edo premiazkoa dela-eta, lehendakariak beharrezkotzat jotzen badu.

35. artikulua.- Informazio-batzordeak ezin izango dira eratu eta abian jarri, batzordeburuak eta idazkariak edo horiek legez ordezkatzeko dituztenak bertaratzen ez badira.

Informazio batzordeen buru izango dira alkatea edo hark izendatutako ordezkari zinegotzia, eta batzordeen osaera hau izango da: batzordeburua, eta talde politikoetako ordezkari bana.

36. artikulua.- Udal idazkaria informazio-batzorde guztien berezko idazkaria da; dena dela, eginkizun hori beste udal funtzionario batzuek ere bete ahal izango dute.

37. artikulua.- Informazio-batzordeetan une oro egon beharko dute horien buru eta idazkari diren kideak.

38. artikulua.-

- a) Informazio-batzordeen bileretara aztertuko diren gaietan interesa duten herritarrak bertaratu daitezke, batzordeburuak horretarako baimena ematen badu.
- b) Gogoetak atekak itxita egingo dira.
- c) Zinegotziak talde bereko beste zinegotzi batek ordezkatu ditzake, batzordeburuari horren berri eman ondoren.

39. artikulua.- Batzordeetan ezin izango dira aztertu beste batzuen eskumenekoak diren gaiak. Hala ere, bi informazio-batzorde edo gehiago elkartzeko deia egin daiteke, batzorde horiei guztiei dagozkien gaiak aztertzeko. Halakoetan Alkateak izendatuko du batzordeburu gisa jardungo duen zinegotzia.

40. artikulua.- Batzordeetako buruei dagokie gai-zerrenda prestatzea, eztabaidak zuzentzea, batzordeetan ordena mantentzea, eta lanak ondo doazela ziurtatzea. Batzordekideek batzordea baino 24 ordu lehenago jasoko dute gai-zerrenda.

41. artikulua.- Informazio batzordeetan ezin izango da gai-zerrendan alde aurretik sartu ez diren gaiak buruz jardun, batzordeak presakotzat jo edo bertaratutako taldeen boto haztatuen gehiengoz hala erabaki ezean.

42. artikulua.- Batzordeen txosten edo irizpenek ezin dute inola ere erabakirik eragin, gaiak aztertu eta prestatzeko baino ez baitute balio.

43. artikulua.- Bertaraturako kide gehienek botoekin onartuko dira irizpenak eta txostenak, eta batzordeburuak eta idazkariak sinatuko dituzte.

Kideren bat irizpenarekin bat ez badator, berak emandako kontrako botoa aktan ager dadila eskatu ahalko du, edo boto partikularra eman ahal izango du.

Dagokien batzordean emandako boto partikularrak bakarrik defendatu ahal izango dira udalbatzarrean.

44. artikulua.- Informazio-batzordeek egiten dituzten bilera guztien aktak egingo dira, akta horiek idazkariak sinatuko ditu, eta horietan batez ere hauek jasoko dira: bertaratutako zinegotzien izenak, aztertutako gaiak eta emandako irizpenak; eta baita izandako hitzartzeen laburpen bat ere, interesdunek hala eskatzen dutenean. Batzordeburuak ere akta sinatu beharko du.

Batzordeetako idazkariak dagokie gai-zerrendako gaiak prestatzea, batzordeek ematen dituzten irizpenak idaztea, eta batzordeetara bidaltzen diren espedienteak kontrolatzea eta gordetzea.

Era berean, idazkariak arduratuko dira udalbatzarreko gai-zerrendan sartu behar diren gaiak (jada irizpena jaso dutenak) denborarekin Alkatezara helarazteaz.

45 artikulua.- Batzordeetako aktak hurrenez hurren zenbatu eta artxibatu egingo dira, eta irizpenak dagozkien espedienteetan jasoko dira.

- Zazpigarren atala: ordainsariak.

46 artikulua.- Udalbatzak urteko aurrekontuan diru-kopuru bat jasoko du, Udalbatzako kideen ordainsarietarako, eta udal eginkizunen ondoriozko kalte-ordainetarako.

47. artikulua.- Alkateari eta dedikazio osoko udalkideei Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emango zaie, eta haiek egiten duten lanagatik dagokien ordainsaria eta beharrezko gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte, Udalbatzak erabakitzen duenarekin bat. Ordainsari horiek udal aurrekontuetatik ordainduko dira.

- Zortzigarren atala: herritarren parte-hartzea.

48 artikulua. - Udalbatzak bere jardunari buruz ahalik eta informazio osoena emango du, eta herritarren parte-hartzea ahalbidetuko du. Nolanahi ere, parte-hartze horrek ez du urrituko udal organoek duten erabakitze ahalmena.

49 artikulua. - Herritar guztiek eskubidea dute udal akordioei buruzko ziurtagirien kopia eskuratzeko, eta artxiboan eta erregistroetan kontsultak egiteko, Administrazio Prozedurari buruzko Legearekin bat, Konstituzioaren 105. artikulua garatzen ez den bitartean.

50 artikulua. - Edozein herritarrek eskubidea du udal organoei bere interesen onarpena eskatzeko, eta

Udalari eskaerak egiteko, udalaren eskumeneko gaietara edo erabakietara dagokienez.

Eskubide hori erabiltzeak ezingo dio inongo kalterik sorrarazi eskatzaileari, delitu edo hutsegiteren bat egin ezean behintzat.

51 artikulua. - Eskaera egiteko idatzian interesdunaren izena, helbidea eta NANA erantsi behar dira, eta Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko da.

Eskatzailea beste norbaiten edo talderen baten izenean ari denean, ordezkaritza hori egiaztatu beharko du.

52. artikulua.- Udal zerbitzuen egitura eta funtzionamendua hobetzeko eskaerak, edo edozein udal organoren ezohiko jarduna adierazteko eskaerak administrazioaren kabuz izapidetuko dira, eta dagokien espedientea bideratuko da, eraginkortasun osoa izan dezaten.

53. artikulua.- Eskaera jaso duen udal-organoak hori erabakitzeko ezgaitzat jotzen badu bere burua, horretarako gaitzat jotzen duenari bidaliko dio, eta hori egin izana jakinaraziko dio eskatzaileari.

54. artikulua.- Edozein herritarrek bere eskubide zibil eta politikoak erabiltzerakoan Udal Administrazioari eska diezaiotke udal ondasunak eta eskubideak defendatzeko beharrezkoak diren ekintzak burutu ditzan.